

Haizeen maitagarria

Bazen behin hiri handi batean, Leire izena zuen neskato bat. Eskolara joan eta geografiako orduan lo geratu zen :

Mendi baten gailurrean zegoen, ez zuen ezer ikusten, lainotuta baitzegoen.

Urrutian kobazulo bat ikusi zuen arte. Kobazuloaren barruan maitagarri bat ikusi zuen eta txunditurik geratu zen. Soineko more eta disdiratsua zeukan, ilea urre kolorekoa zuen.

Irribarre eginez galdetu zion Leireri:

- Nondik zatoz? Nola duzu izena?
- Leire dut izena eta zu nor zara? –galdetu zion .

Maitagarriak horrela erantzun zion:

- Ni lau haizetako zaindaria naiz, nire umeak oraintxe etorriko dira zuri etxeko lanekin laguntzera. Esan didatenez nahiko makal zoaz.

Neskatoa aho zabalik gelditu zen maitagarriaren umeak ikustean eta esan zuen .

- Hauek ez dira umeak, lau haize boladak baizik.
- Kaixo ama! Gaur eskimalei bisita egitera joan naiz -esan zuen iparraldeko haizeak.
- Ni berriz duelu bat ikusi dut pistola eta guzti- esan zuen mendebaldeko haizeak.
- Ba ni, Txinara joan naiz eta hartz polit batzuk ikusi ditut -ekialdekoak.
- Eta nik, Afrikan, Saharako bidean, karabana bat ikusi eta nire ahalmenekin arearen azpian utzi dut- esan zuen hegoaldekoak.

Maitagarriak hegoaldeko haizeari errieta bota ondoren, esan zien:

- Entzun umeak, Leirek zuen laguntza behar du. Zuek lagundu behar diozue ikasketetan. Zoazte eta erakutsi mundua.

- Ongi da ama, baina nola egingo dugu?

Borroka ikaragarria sortu zen. Hasi zen bat:

- Afrikara joango gara.
- Ez, bero handia egiten du denok ibiltzeko.
- Orduan Ipar Polara joango gara.
- Ez, hotza egiten du- esan zuen ekialdekoak.
- Geldi- esan zien amak. Lehenengo bat joango da gero bestea eta horrela egingo dugu.

Lehenbizi mendebaldekoa, gero iparraldekoa, ondoren hegoaldekoa eta azkenik ekialdekoa.

Esandakoa bete zen. Mendebaldekoak cowboy trajea eman zion Leireri eta mendebaldeko haizeak duelua ikustera eraman zuen. Baita mendilerroen gainean ibiltzera ere. Oso gustura zebilen Leire ikasketak burutik kenduta. Mendebaldeko haizearekin gozatu zuen paisaje eder hartaz.

Geroago Finlandiara joan zen iparraldeko haizearekin. Han ederki jolastu zuen Leirek elurrarekin. Lagun bat ere egin zuen. Elur panpina bat egin zuten, baita izotzezko figurak ere. Haizearekin bueltaka eta bueltaka jolasten zen Leire.

Ondoren hegoaldeko haizearekin Saharako basamortura joan zen. Leirek, nekatuta, esan zuen:

- Ze beroa! Asko falta al da?
- Ez, oraintxe iritsiko gara.

Hegoaldeko haizeak, bere magiarekin, haize bolada batez eraman zuen Leire piramideetara. Sartu zenean harritu egin zen gauza hauek ikustean: sarkofagoak, urrea, momiak, paretan marraztutako marrazkiak...

- Zer? Ikasi duzu zerbait?
- Ez, ez dut asko ulertzen.
- Lasai neska! Ni lagunduko dizut.

Hegoaldeko haizea Leireri kontatzen aritu zitzaizkion faraoien historiak. Leirek erne-erne entzuten zion hegoaldeko haizeari. Ez zuen hitz bakar bat ere galtzen. Piramide barruko misterio

guztiak argitu zituzten eta han hegoaldeko haizearen laguna ezagutu zuen Leirek. Aurpegi txarrez esan zuen:

- Kobra hau zure laguna da?

- Bai, lagun minak gara.

Kobrak sugeen dantza eskaini ondoren, basamortutik atera ziren.

Azkenik galdetu zion ekialdeko haizeak:

- Zer ikasi duzu orain arte?

- Dueluak egiten bakeroak bezala, izotzezko izurdeak egiten eta faraoien bizitza nolakoa zen ikasi dut orain arte.

- Ongi, orain zerbait berria ikasiko duzu.

Ekialdeko haizeak Txinara eraman zuen. Leirek galdetu zuen:

- Nola izena du landare horrek?

- Landare hori banbua da, Txinan asko daude.

-Ah!, eta hartz txuri beltz hori?

- Hartz mota horiek izen bat daukate, panda hartzak dira. Pandek banbua jaten dute, asko gustatzen zaie. Panda hau nire laguna da.

- Kaixo, nor ekarri duzu gaur?- galdetu zion panda hartzak ekialdeko haizeari.

- Hau Leire da. Zuei buruz dena jakin nahi du.

- Begira Leire. Gure espeziea Txinan bizi da. Badago leku bat oso luzea, gu ezin gara hara sartu, baina egunero joaten gara leku hura bisitatzera- esan zuen pandak.

Leire eta ekialdeko haizea Txinako harresira abiatu ziren. Leirek galdetu zion:

- Zenbat kilometro ditu?

- 6.700 kilometro dauzka. Harrigarria baietz?

- Ez dago dudarik!- esan zuen Leirek.

- Munduko harresirik luzeena da.

- Hara ! Ez nekien.

Leire itsuturik zegoen, baina ez zegoen oso pozik. Dena grisa zen. Horma oso hotza zegoen.

Hori Leireri ez zitzaion gustatzen, eta galdetu zion ekialdeko haizeari:

- Ezin da harresi luze hau politagoa egin?

- Bai, baina nola egingo dut?

- Panda hartzei eskatu laguntza.

Txinako harresia dekoratu ondoren, haizeen gordelekura abiatu ziren. Hantxe maitagarria agertu eta arrosa urdin bat eman zion Leireri, baina hitz ezagun batzuk esaten zituen:

- Leire esnatu, esnatu neska.

Irakaslea zen, oso haserreturik esan zion Leireri:

- Leire, patioan zurekin hitz egin nahi dut.

Leirek poltsikotik maitagarriak emandako arrosa urdina atera zuen. Bere bizitzako abenturarik ederrena izan zen hura.